

ELKARTEAK

Secureband S.L. enpresak arrakasta izan dezan, beste enpresa batzuekin harremanetan egotea beharrezkoa da. Gure enpresak larrialdietarako eskumuturrak ekoizten dituenek, zenbait erakunde publikoei laguntza eskaintzea erabaki dugu. Adibidez, uste dugu Osakidetza eta Emakunde aliatu onak izan daitezkeela. Izan ere, Osakidetzaren bitartez gure produktua hainbat agure edo gaixoei aurkezteko aukera izango genuke.

- **Emakunde:** Erakunde honek, hainbat egoeratan dauden emakumeei laguntza ematen die, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lortu nahi duen erakundea baita. Haren bitartez, gure produktua emakume gehiagorengana heltzea lortuko dugu. Akordioak eginez haiek gure eskumuturrak saldu ahal izango zizkieten emakumeei. Erakunde honen laguntzaren bitartez, emakumeei gure produktuaren erabilera erakutsi ahal izango diegu eta baita hura nola lortu ere. Azkenik, eskumuturrak pertsonalizatu ahal izateko laguntza emango diete emakumeei.
- **Osakidetza:** Esan dugun bezala, Osakidetza, nahiz eta diru-laguntzak ez eman, produktua agureei eta gaixoei aurkezteko aukera izango du. Gainera, haiekin elkartzean, eskumuturrak nola pertsonalizatzen diren kontatu ahal diegu, haiek ospitaletan edo beste lekuetan saldu ahal izateko. Horren bidez, eskumuturrak leku fisikoetan saltzeko aukera izango dugu. Leku horietan irabazitako diruaren zati bat erakundeentzat izango da eta horrekin, ospitaleek gaixotasunak aztertzeko eta sendagaiak aurkitzeko baliabide gehiago izango dituzte.
- **Behargintza Sestao:** Elkarte honek laguntza eskaintzen die enpresei edo proiektu berriak sortu nahi dituztenei. Behargintzari esker, diru-laguntzak jasotzeko ahalmena izango genuen, eta gainera, proiektua aurrera eramateko aholkuak ematen dituzte. Horrela, proiektuaren finantzazioarekin lagundu ahal dugu, eta horren bidez, gure bazkide bihurtzen da elkarte hau. Azkenik, gure bazkide bada, Sestao herri seguruagoa bihurtzea ziurtatuko du.